





ARRASATEKO UDALA

Bizkaiko Urtxintza
EskolaMusakola
Herri Eskola13. alea
2002-MaiatzaHEZKIDETZAN
Pausoz pausoPaso a paso
En la COEDUCACIÓN

ZINATUEN



KOMUNIKABIDEAK 2

TXIKITXOKOA

Adi nagusi! Lagundu ipuin hau irakurtzen!

Bazen behin, herrialde txiki batean bizi zen printze lirain bat. Bere gazteluko torre altu batean pasatzen zituen gau eta egunak. Egunak gauza ezberdin asko josten pasatzen zituen eta gauak berriz hauek guztiak berriz lehen zeudene-tan uzten. Horrela hurrengo egunerako lana izaten zuen eta gauza bera behin eta berriz errepikatzen zuen.

Printzesa lirain eta ausart bat bera askatzera etorriko zela uste zuen. Torreak leiho bat zeukan eta hau oso goian. Lehen aipatu bezalako printzesa asko hurbiltzen zen azpira baina inork ez zuen printzea askatzea lortu. Hiru hilabete pasa ziren eta printzea gero eta tristeago sentitzen zen...



Horrelakoak al dira zuk irakurtzen dituzun ipuinak?

Zer gertatuko zaio inork askatzen ez badu?

Zer egingo zenuke, zu zeu izango bazina torre horretan bizi den pertsonaia?

Zer egingo zenuke, pertsona hori laguntzea nahiko lukeen laguna izango bazina?

Zer nolako amaiera emango zenioke historio honi?

*Idatz itzazu pertsonaia bakoitzaren ondoan hauei dagokien
objetu edo animaliak;*

Pentsatu zergatik egin duzun horrela

Emakumea

Gizona

Neskatila

Mutikoa

Aitona

Amona

Amantala, motorra, orrazia, kuboa, tronpeta, telefono mugikorra, tximista, erratza, latigoa, eltzea, gaua, txoriak, betaurrekoak, egunkaria, erdiak, maleta, espilua, zigarro purua, landareak, txakurra, arkatza, eguzkia, edalontzia, tanb orra, ordenagailua, liburua, plantxa, termometroa, bizikleta, automobila, kopa, guraizak, soka, botoiak, agenda, eguna.

HELDUEN TXOKOA

Tanto en los cuentos como en las narraciones podemos encontrar estereotipos sexistas. De esto nos podemos dar cuenta al leer las descripciones que os ofrecemos de diferentes personajes que aparecen en ellos.

Protagonistas: *La mayoría de las veces son hombres: Principes, reporteros, super heroes...*

El papel de la mujer: *La mayoría de las veces adptan un segundo plano: novias, madres, hermanas, ayudantes...*

Hombres activos: *Dinámicos, valientes... la mayoría de las veces tienen un cometido que cumplir. Su "premio" por el trabajo realizado a menudo suele ser una chica.*

Mujeres pasivas: *Que cuidan de su casa en espera de su marido. Limpias, soñadoras...*

Niños: *Dinámicos, activos. Son mas valientes que las niñas y adquieren mayor protagonismo.*

Niñas: *Pasivas, limpias, tranquilas, soñadoras...*

Madres: *Sin estudio ni trabajo. Su afición es la casa. A menudo aparecen enfermas.*

Padres: *Muy trabajadores. Viven fuera del ambiente familiar. Muy serios y capaces de tomar decisiones.*

En nuestras manos está ofertar otros modelos diferentes.

Ipuin, mito, aspaldiko narrazio eta baita gaur egungoek ere kutsu sexista bat izan dezakete. Honetaz guztiaz ondorengo pertsonai hauen deskribapenarekin ohart gaitezke. Hau guztia beraz, kontuan hartu eta ahal den neurrian ekidin behar dugu.

Protagonistak: *Gehienetan gizonezkoak, printzipeak, kazetariak, super heroiak, bakeroak, indioak, soldaduak, generalak...*

Emakumearen papera: *Gehienetan bigarren mailan geratzen da, eta protagonistaren menpe: neska-lagunak, amak, arrebak, esklabuak, laguntzaileak, emazteak, neskameak...*

Gizon aktiboak: *Dinamikoak, ausartak... eginbehar bat izaten dute gehienetan. Bere lanaren sari bezala askotan neska bat izaten da.*

Emakume pasiboak: *Etxe bat zaindu beharra eta askotan gizona itxoin beharra. Txukunak, garbiak, ametslariak...*

Emakume izateari uztea da gizonez mozerrotzea emakume aintzindaria askatzeko era bakarra. Mozorro positibo eta aktiboa da, balore eta kapazitatea erakusten du.

Nahiko lotsagarri eta negatiboa da emakumez mozerrotzea. Normalean (sorginak, haratuzteetan barrea eragiteko...)

Mutikoak: *Dinamikoak, aktiboak. Hauek neskak baino ausartagoak eta protagonismo haundiagoak izan behar dute.*

Neskak: *Pasibak, garbiak, txukunak, lasaiak, ametslariak, atseginak...*

Amak: *Lan eta ikasketa gabeak. Afiziorik ez dutenak eta interes kulturalik ere ez dutenak. Beti etxeko lanak direla eta denborarik gabe, askotan ohean gaixorik, etxearen beharretarako bizi dira.*

Aitak: *Oso lanpetuak. Etxeko girotik kanpo bizi dira. Egunkaria irakurri eta telebistaren jabe dira. Oso serioak eta erabakiak hartzeko gai dira.*

Gure esku dago bestelako ereduak eskaintzea.